

# ERALDATZEKO IKASI ESKOLA POLITIKOAK BULTZATZEKO GIDA PRAKTIKOA

2025



DATA  
2025



**GIPUZKOAKO SOS ARRAZAKERIA**  
Etxeko Lanaren Arloa

Honako hauen laguntzarekin:



**LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA**

# AURKIBIDEA

---

## 01 SARRERA

---

## 02 ESKOLA POLITIKOA

---

- 2.1. Zer da eskola politikoa?
- 2.2. Nori zuzentzen zaizkion eskola politikoak?
- 2.3. Eskola politikoaren helburuak
- 2.4. Eskola politiko motak

## 03 ESKOLA POLITIKOA ABIAN JARTZEKO URRATSAK

---

- 3.1. Eskola politikoa zuzentzen zaion kolektiboaren beharren azterketa
- 3.2. Beste esperientzia batzuk ezagutzea
- 3.3. Espazioak eta denborak aukeratzea
- 3.4. Gaiak eta edukiak aukeratzea
- 3.5. Hezitzaileak hautatzea
- 3.6. Ebaluazioa
- 3.7. Ospakizuna


## 04 ONDORIOAK ETA IRASKUNTZA NAGUSIAK

---

**01**



**SARRERA**



Esku artean duzun eskuliburua esku-hartze sozial komunitarioko prozesu luze baten emaitza da, jatorri migratzaileko etxeko langileen gaitasunak indartzera bideratua, beren eskubideak defendatzeko.

2024ko maiatzaren eta 2025eko otsailaren artean, SOS Arrazakeria Gipuzkoak, EHUko Gizarte Psikologia Sailarekin lankidetzan, etxeko langileentzat eskola politiko bat bultzatu zuen, etxeko sektorean lan egiten duten emakume migratuekin prestakuntza-gune bat sortzeko beren eskubideen defentsarekin lotutako gaietan, eta, horretarako, eskubide horien ezagutzatik hasi eta subjektu politiko gisa eratzeko lidergoa indartzeraino heldu zen.

Esperientzia hori eta esperientzia horretatik ateratako ikaskuntzak biltzen ditu eskuliburu honek. Eta haren asmoa da metodologia erreplikagarri bat eskaintzea, beren bizitzetan eragina duten erabaki politikoetarako guneetatik baztertuak diren pertsonak ahalduz lagunduko duena, subjektu aktibo eta beren eskubideen defentsan antolatutak izateko.

SOS Arrazakeria Gipuzkoak, 2018az geroztik, etxeko lanaren arlo espezifikoko bat du, urtero 250 etxeko langile baino gehiagori laguntzen diena, haien eskubideen ezagutzan, erabileran eta defentsan.

Azken hamarkadan, elkarteak etxeko langileen lan-baldintza negargarriari buruzko kontakizunak bildu ditu, sektoreko langileen kalteberatasun-egoerak betikotzeko aukera ematen duen lan-legeria, eta haien eskubideak bermatzeko eta defendatzeko lan egingo duten erakunde sindikalen gabezia; hori guztia, atzeritartasun-egoerak eta horrek dakartzan ondorioek eta jatorriaren, generoaren eta klasearen arabera bereizketaren aldagaiek zeharkatuta.

Hori dela eta, SOS Arrazakeriak lan-aholkularitza eskaintzen die jatorri atzeritarra duten etxeko langileei. Zerbitzu estrategiko horrek aukera ematen dio erakundeari emakume horiekin batzeko eta haien behar eta denboretara egokitutako esku-hartzeak diseinatu eta aplikatzeko; aldi berean, haien eskubideak babesten ditu, eragin-jarduerak egin, eta kolektibo gisa autoantolatzea ahalbidetu eta sustatzen du.


1000tik gora pertsona artatzen ditugu zerbitzu honen bitartez, eta 400 emakume inguruk parte hartzen dute SOS Arrazakeriako Etxeko Langileen Taldearen aisialdiko jardueretan, tailerretan, batzarretan eta ekimenetan, zeinaren helburua baita sektorean enplegatutako emakume migratuen gaitasunak eta sareak eraikitzea eta indartzea.

Bide horretan bat egiten dute EHUKo Gizarte Psikologia Sailak eta Emaus Gizarte Fundazioak. Bidegurutzean ekimena bitarte, Emausek lagundu zuen asteroko erreferentzia-guneak finkatzen, etxeko langileek beste emakume batzuekin topo egiteko, haien gizarte-isolamendua hausteko, kezkak partekatu eta konfiantzazko guneak sortzeko. EHUKo Psikologia Fakultateko ikerketa-taldea aliatu estrategikoa da, eta 8 urte eta gehiago dira lankidetzan ari dena, diagnostiko zabalak eta ebaluazioak egiten. Hala, ebidentzian oinarritutako esku-hartze doituak diseinatu ahal dira, jarraipen zorrotzarekin, eta ezagutza kokatua eta zientifikoa elkartzen dira.

# 02

---

## ESKOLA POLITIKOA



## 2.1. Zer da eskola politiko bat?

Eskola Politikoa edo Jabekuntza Eskola pertsonak eta taldeak beren eskubideen defentsan eta aldarrikapenean indartzeko diseinatutako formakuntza-gunea da. Tailerren, hitzaldien, formakuntzen eta parte hartzeko jardueren bidez, eskola horiek aukera ematen dute eskubideen aldeko borroka baloratzeko, botere-egiturak aztertzeko eta aktibismo eta mobilizazio kolektiboko estrategiak garatzeko.

## 2.2. Nori zuzentzen zaizkion eskola politikoak?

Eskola politikoak pertsona eta kolektiboen gaitasunak indartzera zuzentzen dira, bizi dugun gizarte- sistema liberalista, patriarkala, arrazista eta kolonialistak haien eskubideak sistematikoki urratzen dituela ikusten baitute.

Kolektibo horiek askotarikoak dira, eta hainbat eskubideren urraketak jasan ditzakete, baita gorputz berean pilatu ere, eta, ondorioz, baztertuta geratzen dira beren bizitzetara zuzenean eragiten dieten politikei buruzko erabakiak hartzetik (emakumeak, gorputz disidenteak, pertsona arrazializatuak, indigenak, nekazariak, etab.).

### Gure kasuan...

Gipuzkoan bizi diren jatorri migratzaileko etxeko langileei zuzentzen diegu esku-hartzea.

## 2.3. Eskola politikoaren helburuak

Eskola politiko guztiek helburu bera dute: subjektu politiko bihurtzeko prozesuan kolektibo kalteberei laguntzea, nahiz eta eskola bakoitzak prozesuan parte hartuko duen kolektiboaren beharretara eta ezaugarrietara egokitu behar duen.

Horretarako, eskola politikoek honako hauek dituzte ardatz:

- Eskolan parte hartzen duten pertsonen taldearekin identifikazio positiboko prozesuak sortzea.
- Aurrez aurre jartzen dituzten diskriminazioen egiturazko baldintzak identifikatzea.
- Zure eskubideak baliarazteko erabil daitezkeen estrategiak eta baliabideak aztertzea.
- Elkartasuna, antolakuntza eta ekintza kolektiboa sustatzea, gizarte demokratiko, ekitatibo eta justu baterako bide gisa.

## Gure kasuan...

Gure eskola politikoaren helburua zen formakuntza-prozesu eraldatzaile bati ekitea, etxeko langileak herritar kritiko eta antolatuen parte izan daitezen, lidergoari, gizarte-antolaketari eta sareak sendotzeari dagokienez langileen ahalduntzea indartzeko.

## 2.4. Eskola politiko motak

Jarraian, inspirazio-iturri izan daitezkeen eskola politikoaren adibide batzuk emango ditugu, nahiz eta eskola bakoitzaren garapenak bere berezitasunak izango dituen eta testuingurura egokitu beharko den:

**1. Formakuntza politikoko eskolak gizarte-mugimenduetan:** Gizarte-mugimendu askok eskola politikoak ezarri dituzte beren kideak trebatzeko antolaketara, analisi politiko eta lidergorako gaitasunetan. Adibidez, Brasilgo Lurrik Gabeko Mugimenduak lurrik gabeko nekazarietzako eskolak garatu ditu, eta nekazaritza-erreformaren alde borrokatzeko tresnak eskaini.

**2. Jatorrizko komunitateentzako eskolak:** Hainbat herrialdetan, lurraldeko jatorrizko komunitateek beren eskola politikoak ezarri dituzte beren kultura zaintzeko, beren identitatea indartzeko eta komunitateko liderrak gaitzeko. Eskola hauek askotan hezkuntza politikoa eta kultura eta ingurumen hezkuntza uztartzen dituzte.


**3. Emakumeentzako eskolak:** Leku askotan emakumeentzako espezifikoki eskola politikoak ezarri dira, genero desberdintasunari heldu eta emakumeak ahalduntzeko helburuarekin, bizitza politikoan parte har dezaten. Eskola horiek lidergoan, giza eskubideetan eta parte-hartze zibikoan gaitzea eskaintzen dute askotan.

**4. Langile migratzaileentzako eskolak:** Langile migratzaileek diskriminazioari eta esplotazioari aurre egin behar dioten testuinguruetan, eskola politikoak ezarri dira haiek ahalduntzeko eta beren eskubideak defendatzeko tresnak emateko. Eskola hauek askotan migrazioa, lan duina eta justizia soziala bezalako gaiak jorratzen dituzte.

# 03

---

## ESKOLA POLITIKOA MARTXAN JARTZEKO URRATSAK



## 3.1. Eskola politikoak zuzentzen zaion kolektiboaren beharren azterketa

### Helburua

Helburu duen taldearen beharrei eta indarguneei erantzungo dien proposamen bat diseinatzea, formatua eta edukiak haren ezaugarrietara egokituz.

### Nola egiten den

Ikusi dugunez, eskola politikoak pertsonak eta taldeak beren eskubideen defentsa eta aldarrikapena indartzera bideratzen dira. Horregatik, ezinbestekoa da eskolak helburu duen kolektiboa ondo ezagutzea, bere behar eta indarguneetatik abiatuta, bere helburuak lortzeko bidean aurrera egiten lagunduko dioten tresnez hornitzeko.

Analisi hori hainbat modutan egin daiteke. Talde jakin batekin etengabe lan egiteak aukera ematen du taldea behatzeko eta sakon ezagutzeko. Gainera, parte hartuko duten pertsonak elkarrizketan jartzea ahalbidetzen duten dinamikak daude, haien interesak eta indarguneak aztertzeko. Era berean, badaude metodologia batzuk parte ez hartzeko joera duten ahotsak jasotzen laguntzen dutenak, lotsatiagoak direlako edo ahulagoak direlako.

Nahiko denbora izanez gero, ikerketa sakonagoa egitea komeni da, egindako behaketak taldean parte hartzen duten pertsonekin alderatzeko, eta, hala, haiek berek baieztatzeko gai batzuetan edo besteetan formatu beharra dagoela. Ikerketa hori egiteko, lantalde profesionalak ditugu, ikerketa nola egin orientatzeko eta tresna erabilgarriak eskaintzeko, hala nola inkestak, elkarrizketak edo eztabaida-taldeak.

### Gakoak

- Taldearen beharrak eta indarguneak identifikatu.
- Kontrastatu zure iritzia kolektiboaren iritziekin.
- Egin ahalegin bat ahots guztiak biltzeko, ez bakarrik pertsona aktiboenak; guztiek dute zer ekarri.
- Aukera izanez gero, izan ezazu informazioa biltzen lagunduko dizun talde profesional bat.

## Gure kasuan...

SOS Arrazakerian hamarkada bat daramagu jatorri migratzaileko etxeko langileekin lanean, eta etxeko lan arloko talde profesionalean bertan kolektibo horretako kide izan diren pertsonak ditugu. Harreman horretatik abiatuta, haien indargune nagusiak identifikatu eta kontrastatu dira denboran zehar, baina baita zer gaitan formatu nahiko luketen eta modu sistemikoan urratzen zaizkien eskubideak ere.

Gainera, unibertsitatearekin izandako etengabeko lankidetzari esker, emakume horien ezaugarriari, baldintzei eta pertzepzioei buruzko hainbat diagnostiko egin ahal izan dira, informazio kualitatibo eta kuantitatiboarekin.

Horrela, parte-hartzaileen benetako behar eta indarguneetara egokitutako eskola politikoaren formatua eta edukia diseinatu ahal izan ditugu.

## 3.2. Beste esperientzia batzuk ezagutzea

### Helburuak

Errore-marjina murrizteko, esperientzietatik ikastea eta haiekin alderatzea.

### Nola egiten den

Zaila da gupila berriz asmatzea, eta milaka urtez elkarrekin egon ondoren, seguruenik pentsatzen ari garen hori beste nonbait probatu dute. Horregatik, eta kolektibo bakoitzak berezitasun eta baldintza ez estrapolagarriak baditu ere, antzeko ezaugarriak dituzten guneetan zerk funtzionatu duen jakiteak aukera ematen du zerotik ez abiatzeko eta esperientziak eta arazoak aliatu posibleekin partekatzeko, bidean sor daitezkeen zalantzak argitzen lagunduz.

Hori dela eta, antzeko esperientziei buruzko informazioa bilatzera animatzen zaitugu eta, ahal izanez gero, haiekin harremanetan jarri eta zure zalantzak, interesak eta kezak partekatzera. Elkarrizketa horiek zenbait egoeratan nola jokatu azalduko dizute, eta hasiberrien akatsei aurrea hartzen lagunduko dizute, beste esperientzia batzuetatik ikasiz.

### Gakoak

- Informa zaitetz lehendik dauden esperientziei buruz eta, ahal baduzu, jar zaitetz haiekin harremanetan.
- Aztertu esperientzia horien eta zurearen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak, funtziona dezakeena erreplikatzeko eta zure testuinguruan ondo egokitzen ez dena egokitzeko.
- Zalantzak galdetu eta kezak partekatu.

## Gure kasuan...

Eskola politikoa ezarri aurretik, hainbat topaketa egin ziren beste lurralde batzuetako etxeko langileen kolektiboekin, haien esperientzietatik ikasteko.

Aldi berean, EHUko Gizarte Psikologia Sailak eskola politikoen hainbat eredu aztertu zituen, beste leku batzuetan eta beste publiko batzuekin garatutako ereduak aztertuz, baita ekintza kolektiboaren identitate sozialari buruzko eredu teorikoak ere. Horri guztiari esker, ikaskuntza horiek Gipuzkoako etxeko langileen testuingurura egokitu ahal izan ziren.

### 3.3. Guneak eta denborak aukeratzea

#### Helburuak

Eskola politikora joatea bermatzea, parte-hartzaileei zailtasun gehigarriarik eragin gabe, hazkunde-eremu partekatuak, irisgarriak eta seguruak bultzatuz.

#### Nola egiten den

Taldearentzat gune eta denbora egokiak izatea funtsezkoa da haien inplikaziorako. Alde horretatik, eta are gehiago denbora mugatuko kolektibo bat baldin bada, bermatu behar dugu gunean parte hartzeak aparteko ahaleginik ez dakarkielako, baizik eta prestakuntza beren garapen pertsonal eta kolektiboaren zati garrantzitsutzat jotzen dutela. Garrantzitsua da pertsona batzuek duten denbora mugatua baloratzea, eta haien parte-hartzea lehenestea, asistentzia zorrotzaren gaineratik.

Hala, fase hori garatzeko, ezinbestekoa da aurrez azaldutako gaitasunen eta ahulezien azterketatik abiatzea. Azterketa horrek kontuan hartu beharko lituzke eskola zuzentzen zaien pertsonak mugitzen diren guneak, pertsona horiek seguru sentitzeko guneak izan daitezen zainduz, dituzten denborak, familia- eta lan-kargak, beste kolektibo batzuekiko harremanak, etab.

#### Gakoak

- Formazioak bere denbora libreetara egokitu, baina bere erabilgarritasun osoa bete gabe.
- Izan zaitez malgua ordutegietan, horrek formaltasuna galtzea ekarri gabe; ez du axola norbait berandu iristen bada edo lehenago alde egin behar badu, ezta saio guztietara joan ezin badu ere.
- Parte-hartzaileak eroso eta seguru sentitzeko guneak erabili.
- Kontziliazioa erraztu, beste pertsona batzuen zaintza ardura dutenen kasuan.

- Bizikidetzeta-arauak ezarri eta adostu bilkuren hasieratik.
- Dimentsio afektiboari lekua egin; loturak ezartzen diren taldeetan, ikaskuntzen esanahia modu kolektiboan ematen da.

### **Gure kasuan...**

Etxeko langileen kolektiboan topatzen dugun muga nagusia denbora libre gutxi izatea da, batez ere barnekoen kasuan. Hori dela eta, eskola bere astialdietara egokitzen saiatu ginen, eta langileek jada ezagutzen zituzten guneak bilatu genituen. Horretarako, lan egiten duten eta/edo bizi diren udalerrietan dagoeneko ezarrita dauden asteroko topaguneak baliatu ziren, eskola parte-hartzaileengana hurbilduz eta haien denbora baliotsuaren zati bat agortzen zuten joan-etorriak saihestuz. Hala, 2 orduko moduluak egin ziren, eta bakoitza 4 udalerritan eman zen. Gainera, horri esker, langile batek ezin bazuen bere udalerrian emandako formakuntza-modulura joan, beste leku batera joateko aukera izan zuen. Era berean, eta aisialdi guztia formakuntza-jarduerekin ez betetzeko, hilabeteka zehaztu ziren formakuntzak, eta horrek aukera eman zuen elkarrekin hausnartzen eta ikaskuntza informalak barneratzen jarraitzeko, formakuntzarik ez zegoen asteroko topaguneetan.

### **Zer egoeratik ikasi dugun...**

Formakuntza-prozesuak garrantzi indibidual eta partekatu handiena hartu duen taldeak izan ziren parte-hartzaile gehienen artean alde aurreko harremana zutenak, eta lotura hori sendotuz joan zen prozesuan bertan. Lotura horrek, ikasgelako gune formaletik haratago eta asteroko topaketa informaletara hedatzen denak, talde-giro seguru eta hazkorra sortzea ahalbidetu zuen. Testuinguru horretan, ikaskuntzen eraikuntza ez da norberaren esperientziara mugatzen; erresonantzia kolektibotik elikatzen da, eta besteengan norberari gertatzen zaiona antzematea ahalbidetzen du. Aitzitik, soilik formakuntzaren inguruan sortu zen talde bakarra, partaideen artean alde aurretiko lotura afektiborik eta prozesuan zehar garatutakorik izan gabe, konstantzia gutxienekoa, kopuru txikienekoa eta jariakortasun txikienekoa izan zen. Bizipen eta adibide partekatuen ikuspegi indibidualagoa nagusitu zen bertan.

Tailerren antolaketa praktikoa ere giltzarri izan zen. Langileei eskainitako malgutasunak eta konfiantzak, baita beraiek aisialdiko jarduerekin lotzen zituzten guneen erabilerak ere, kasu batzuetan, formakuntzarekin zerikusirik ez zuten gaiak jorratzen ziren taldetxoak sortzera eraman zituen. Egoera hori konpontzeko, saioak gune fisiko alternatibo batera eraman ziren. Gune hori ere ezaguna zen parte-hartzaileentzat, baina ez zegoen dibertsioari lotuta, eta giro formalagoa eta ikaskuntzara bideratuagoa zegoen.

Bestalde, ez genuen lortu tailerrak puntualki hastea. Etxeko langileen denboramugak eta ordutegi-aniztasuna kontuan hartuta, malgutasuna ezinbestekoa bada ere, esperientziak erakutsi zigun saioaren hasiera zehatzagoa ezarri behar zela: adostutako orduan hasi, nahiz eta parte-hartzaile guztiak ez egon, eta hori ere modu argian helarazi hezitzaileei.

Era berean, esperientzia errepikatuko bagenu, oinarrizko bizikidetza-arauen esparru bat sartuko genuke, ikasgelan ikusteko modukoa, oroigarri partekatu gisa balioko lukeena eta prestakuntza-espazioarekiko konpromiso kolektiboa indartzen lagunduko lukeena.

### 3.4. Gaiak eta edukiak aukeratzea

#### Helburua

Zuzentzen zaion taldearen beharrei erantzungo dien proposamen bat diseinatzea.

#### Nola egiten den

Ordutegien eta guneen aukeraketarekin batera, edukien aukeraketa bat egin zen, 1. eta 2. faseetan lortutako emaitzetatik abiatuta.

Gaiak aukeratzea eta horiek helarazteko modua funtsezkoa da bertaratutakoen artean interesa sortzeko. Modulu bakoitza pieza bat bezala ulertu behar da, eta, gainerakoei gehitzean, formakuntza-prozesua bere osotasunean eraikitzen joango da. Helburua ez da eduki isolatuak eskaintzea, baizik eta gaien arteko loturak erraztuko dituzten oinarrizko ideiak finkatzea, jorratutako problematikak modu zabalagoan eta elkarrekin lotuago batean ulertu ahal izateko. Horrela, hausnarketa-esparruak eratzen dira, eta parte-hartzaileek, informazioa jasotzeaz gain, kontzeptuen arteko loturak ezartzeko, kausa-efektuko erlazioak ezagutzeko eta arrazonamendu propioak egiteko gaitasuna garatzen eta/edo aberasten dute. Praktika horrek ahalbidetzen du edukiak transmititzetik subjektu kritikoak eraikitzen pasatzea, beren bizitzak zeharkatzen dituzten baldintzak kolektiboki aztertu eta alternatibak proiektatzeko gai direnak.

Illo horretan, garrantzitsua da formakuntza-modulu guztiak prozesu beraren barruan aurkeztea, baina bati huts eginez ere, ikastaro osoaren ulermena baldintzatu gabe. Era berean, moduluak zein ordenatan emango diren kontuan hartzea gomendatzen da, izan ere, moduluekin lotzeak interesa pizten laguntzen du eta alde aurretik ikasitakoa ezagutzeko eta balioesteko aukera ematen du.

Azkenik, moduluak diseinatzerakoan, kontuan hartu behar da pertsona guztiek ez dutela zertan alfabetatze-maila bera izan behar. Hori dela eta, edukiak modu irisgarrian landu behar dira, eskola politikoaren helburuak ahaztu gabe. Prozesu horretan, gainera, funtsezkoa da parte-hartzaileek ikasketa arautuetatik harago dituzten jakintzak ezagutzea eta baloratzea.

## Gakoak

- Arautu gabeko ezagutzak ezagutu eta balioetsi.
- Edukiak egokitu, erraz uler daitezzen.
- Edukiak kolektiboaren interes eta beharrekin lotu.
- Edukien arteko lotura erraztu, norberaren arrazoibideak eraikitzea eta pentsamendu kritikoa garatzea sustatzeko.
- Moduluen edukia halako moldez egituratu, non moduluak elkarren osagarri izango baitira, baina moduluetatik kanpo egoteak ez baitu baldintzatuko gainerakoen ulermena.
- Metodologia parte-hartzaileak hautatu, norberaren bizipenetatik hausnartzeko.
- Ordenatu moduluak, eta jarri lehenik interes handiena piztu dezaketenak.

### Gure kasuan...

Bildutako informazioa, SOS Arrazakeria taldeak metatutako esperientzia eta EHUko aliatuekin partekatutako hausnarketa teoriko-praktikoak kontuan hartuta, bereziki Van Zomeren eta kolaboratzaileek 2008an garatutako ekintza kolektiboaren identitate sozialaren eremuan oinarrituta (SIMCA, ingelesezko sigletan), hautemandako beharrei erantzuten zieten 8 gai aukeratu genituen:

MODULUA	BEHARRA	HELBURUA	SIMCA DIMENTSIOA
Lan-eskubideak	Eskubidedun subjektu izatearen kontzientzia hartzea eta oinarritzko lan-eskubideak ezagutzea.	Autoeraginkortasuna eta lan-eskubideak defendatzeko eskumenak areagotzea, legeria ezagutuz.	Eraginkortasun kolektiboa. Ezagutzaren eta ekintzaren bidez eskubideak gauzatzea eta egoera aldatzea posible delako ideia indartzen da.
Autozainketa	Etxeko langile eta talde gisa nortasun positiboa eraikitzea.	Autoestimua eta onarpena indartzea, eskubideen eta zainketen hartzaile baitira.	Identitate kolektiboa. Taldeko kide izatearen zentzua eta taldearekiko identifikazio positiboa indartzen dira.

MODULUA	BEHARRA	HELBURUA	SIMCA DIMENTSIOA
Diskriminazioa	Diskriminazio ugarietaz jabetzea, ikuspegi inklusibo eta intersektional batetik.	Desberdintasuna justifikatzeko diskurtsoak desinternalizatzea eta taldeen arteko elkartasuna sustatzea.	Antzemandako bidegabekeria. Diskriminazioa egiturazko gisa ikusten da, eta sumindura partekatua sortzen da, ekintza kolektiborako motorra.
Migrazio-prozesuetako genero-zapalkuntzak	Generoan, klasean eta jatorrian oinarritutako diskriminazioa identifikatu eta zalantzan jartzea.	Emakume migratzaileen identitatea indartzea, aldaketa-eragile gisa, eta feminismoaren ikuspegi positiboa hurbiltzea.	Identitatea + Injustizia. Identitate feminista kolektiboa eraikitzen da eta zapalkuntza espezifikoen injustizia onartzen da.
Bizitzaren iraunkortasun. Zainketen pedagogia	Etxeko lanak eta gizartean bizitzeko zainketek gizarteari egiten dioten ekarpena baloratzea.	Zainketen zentralitatea eta horien balorazio sozial eta politiko justua aldarrikatzea.	Injustizia + Identitatea. Ikusezintasuna injustizia gisa konfrontatzen da, eta zainketen balio sozialari lotutako identitatea indartzen da.
Ingurumen-jasangarritasuna	Klima-krisiaren eta migrazio-prozesuen arteko lotura ezagutzea.	Ingurumen-justizia eta gizarte-justizia lotuko dituen ikuspegi ekofeminista integratzea.	Egiturazko bidegabekeria. Desberdintasunak sortzen dituzten kausa globalak ikusarazten dira, eta kontzientzia kritikoa sustatzen da.
Bozeraileak eta lidergoak	Lidergoarekiko eta aktibismoarekiko mesfidantzak gainditzea.	Komunikazio- eta lidergo-trebetasunak garatzea, ordezkaritza kolektiborako.	Eraginkortasun kolektiboa. Taldeak antolatzeke eta aldaketak lortzeko duen gaitasunean konfiantza izatea lantzen da.
Kultura demokratikoa	Antolamendu formalari eta baliabide kolektiboari buruzko ezagutza zabaltzea, arlo publikoan eragiteko.	Parte-hartze politiko eta soziala indartzea, ekintza kolektiboaren eta praktika demokratikoaren bidez.	Identitatea + Eraginkortasuna. Eragiteko gai den talde bateko kide izatea indartzen da, eta ekintza kolektiborako baliabideak indartzen dira.

## 3.5. Hezitzaileak hautatzea

### Helburuak

Emakume migratuen eta kolektibo aliatuen esperientziatik abiatuta, hezitzaileek gogoeta kritikoko eta eraikuntza kolektiboko prozesuetan laguntzea bermatzea.

### Nola egiten den

Pertsona guztiok ez ditugu berdin transmititzen dauzkagun ezagutzak. Horregatik, funtsezkoa da komunikazio-gaitasunak dituzten hezitzaileak hautatzea, taldearekin enpatia eta komunikazio ona izango dutenak, taldeak uste bezala erantzuten ez badu inprobisatzeko gai izango direnak, prestakuntzaren helburuetatik urrundu gabe.

Eskolaren balio feminista eta antiarrazistekin bat eginez, emakume migratuen eta kolektibo aliatuen hautaketari lehentasuna ematea ekarpen handia izan daiteke. Horrela, identifikazioa indartzen da, ikusezin bihurtutako jakintzak legitimatzen dira eta prozesuari indar politikoa ematen zaio.

Hautaketaren oinarria da izan daitezkeen formatzaileak identifikatzea eta erreferentziak eragile aliatuekin kontrastatzea. Behin aukeratuta, jakinaraziko zaie ez dela formakuntza arautua. Ordutegiak malguak izan daitezke, taldea aldakorra, bateragarritasuna erraztu nahi badugu baliteke parte-hartzaileak hurrekin joatea, alfabetatze-mailak ez du zertan homogeneoa izan behar, etab.

Hezitzaileek aldaera horiek onartzen ez badituzte, agian ez dira pertsona egokiak izango. Onartzen badituzte, hurrengo urratsera jo dezakegu, hau da, edukiak adostu eta kolektibo parte-hartzailerara egokitu. Horretarako, ezinbestekoa da eskola politikoaren ideari hasiera eman zion diagnostikoa partekatzea, bere helburua azpimarratuz eta taldean antzemandako beharrak eta indarrak nabarmenduz. Modulu bakoitza, beraz, helburu komun bati lotzen zaio: ahalduntze kolektiboa.

Hezitzaile bakoitzarekin moduluka lan egiteaz gain, garrantzitsua da material osagarria eskatzea, irakurketak eta ariketak batera erreparasatuz, adostutakoarekin bat datozela bermatzeko. Material hori parte-hartzaileei eman dakieke, etxean azter dezaten eta gaiak sakontzen jarrai dezaten.

### Gakoak

- Hezitzaileak mimos hautatu, gai horretan komunikatzaile eta aditu onak izateaz gain, kolektiboarekin enpatia dutela eta emakume migratuak eta kolektibo aliatuak lehenesteko irizpide politikoari erantzuten diotela ziurtatuz.

- Jakinarazi hezitzaileei zure eskola politikoaren eta formakuntza arautuaren arteko desberdintasunak, eta adostu parte-hartzea eta bateragarritasuna erraztuko duten arau zehatzak.
- Eskola politikoaren helburu orokorra hezitzaileekin partekatu, bere moduluaren helburua ahalduz kolektiboaren prozesu komunean nola txertatzen den azalduz.
- Edukiak xehetasunez errepasatu hezitzaileekin, banaka, materialak ulergarriak direla eta eskola politikoa ematen zaion kolektibora egokituta daudela ziurtatuz.
- Material osagarria eskatu, bertaratutakoei irizpide komun batzuen arabera emateko: material motzak, praktikoak eta ahozko edukia errepikatu gabe saioa osatzekoak.

### **Gure kasuan...**

Etxeko langileekin enpatizatze eta formakuntza-prozesua aberasteko hezitzaileak bilatzen hasi ginen, haien begiradatik ekarpenak eginez. Horretarako, hezitzaile guztiak, irakatsiko zuten gaia sakontasunez ezagutzeaz gain, emakumeak eta, ahal izanez gero, migratzaileak izatea lehenetsi genuen.

Eskola politikoaren ideiarra eraman zuten gogoetak haiekin partekatu genituen, bilera bateratu batean, 4 taldeen artean dauden desberdintasunez ohartaraziz eta malgutasun-arauak adostuz, etxeko langileen parte-hartze aktiboa ahalbidetzeko (ordutegiak, kontziliazioa, kafea eta askaria formakuntzetan zehar...). Era berean, haien ekarpenak eta iradokizunak jaso genituen, hala nola lehen sorospen emozionalen protokolo bat izatea.

Bestalde, edukiak banaka landu ziren horietako bakoitzarekin. Bi ordu oso denbora gutxi iruditzen zitzaigunez modulu bakoitzeko gaiak lantzeko, hezitzaileei material osagarria eskatu zitzaien, irakurketak eta ariketa praktikoak barne, edukiak eskolako helburu komunekin lotzeko balio zezaten.

Material hori guztia karpeta batean sartu zen. Karpeta hori parte-hartzaile bakoitzari emandako tresna-kaxa pertsonal gisa bihurtu zen, informazio hori izan zezan nahi eta ahal zuenean kontsultatzeko, irakurtzeko, aztertzeko eta abarretarako.

### **Zer egoeratik ikasi dugun...**

Hezitzaileekin etengabeko harremana izan bagenuen ere, beharrezkoa ikusten dugu jarraipen zehatzagoa egitea moduluen edukiak hobeto lotu eta artikulatzeko, horrela formazio prozesuaren ideia indartuz eta parte-hartzaileek saio bakoitza tailer isolatu gisa bititzea saihestuz.

Era berean, material osagarrien kopurua mugatuko genuke. Hala, parte-hartzaileen artean hainbat dokumentu banatu beharrez, hezitzaileei eskatuko genieke baliabideak emateko, etxeko langileek eurek eskura ditzaten gehien interesatzen zaizkien gaiari buruzko informazio garrantzitsua bilatzeko tresnak, formakuntza-eduki hutsetik harago doazen trebetasunak eta gaitasunak garatu ahal izan ditzaten. Gainera, material horiek gutxienez astebete lehenago eskatuko genituzke, formatu berean bateratzeko eta multzoak prozesu partekatuaren ideia ere islatuko duela ziurtatzeko.

## 3.6. Ebaluazioa

### Helburuak

Eskola politikoak parte-hartzaileengan duen eragina neurtzea, eta prozesuaren erreplikari begira hobetzeko puntuak aurkitzea.

### Nola egiten den

Ebaluazioa funtsezko urratsa da gure ekintzen eragina neurtzeko. Parte-hartzaileengan gertatzen den aldaketa aztertzeko aukera ematen digu, bai eta etorkizuneko ekintzetan aplikatu daitezkeen hobekuntza-puntuak eta ikaskuntzak identifikatzeko ere. Alde horretatik, garrantzitsua da ebaluazio-maila desberdinei erreparatzea. Beraz, egokiena honako hau neurtzea litzateke:

- Asebetetzea, hau da, edukiak, metodologiak, ordutegiak eta bestek parte-hartzaileen itxaropenak bete ote dituzten, eta haien interes eta beharretara egokitu diren.
- Eragina, hau da, eskola politikoan parte hartu duten pertsonengan ematen den jarreraren eta pentsamenduaren aldaketa.
- Prozesua, hau da, jarduerak nola garatu diren, desbideratzeak hautemateko eta aurreikusi gabeko egoeren arabera zuzentzeko edo egokitzeko.

Beharrak diagnostikatzeko eta aztertzeko fasean bezala, gomendagarria da talde profesional baten laguntza izatea, ebaluazioa nola egin orientatzeko eta horretarako teknika eta metodologia eraginkorrak emateko. Ezingo balitz, kontuan hartu behar da aldaketa neurtzeko abiapuntua sakon ezagutu behar dugula. Hori dela eta, gomendagarria da aurre-post ebaluazio bat egitea, eskola politikoa egin aurretik eta ondoren datuak bilduz, horrek aldaketa neurtzeko aukera emango baitigu.

Hala ere, pertsona guztiak ez daude ohituta inkestak betetzera eta errealitateaz duten pertzepzioari buruzko elkarrizketa sakonak egitera.

Hori dela eta, garrantzitsua da prozesua zaintzea, tartean dauden pertsonak galderaz josi gabe, baina bai ebaluazioaren garrantzia azalduz, uler dezaten beren erantzunen bidez lagundu dezaketela etorkizunean beren egoera berean dauden pertsonak egin ahal izango dituzten jarduerak hobetzen. Era berean, eztabaida-taldeak edo dinamika zehatzak sortzea oso eraginkorra izan daiteke parte-hartzaileen iritziak jasotzeko.

## Gakoak

- Prozesuaren hasieratik planifikatu ebaluazioa, argi izanik zein den neurtu nahi duzun aldaketa.
- Ebaluazioaren garrantzia helarazi parte-hartzaileei, eta azaldu bere ekarpenak etorkizuneko prozesuak hobetzen lagunduko duela, nahiz eta batzuetan aspergarria izan daitekeen galdetegiei erantzutea.
- Formakuntza-moduluak modu independentean ebaluatu nahi badituzu, kontuan hartu horretarako gune bat hasierako plangintzatik.
- Aukera izanez gero, lortu ezazu ebaluazio-tekniketan eta datu-analisietan orientatuko zaituen talde profesional bat.
- Datuak biltzeko hainbat teknika konbinatu (elkarrizketak, inkestak, eztabaida-taldeak...), eta nolabaiteko homogeneotasuna lortzen saiatu, datuak errazago analizatzeko eta sistematizatzeko.
- Emaitzak aztertu, hobekuntza teknikoaz gain, ikaskuntza-prozesu kolektiboaren parte gisa ere.
- Hurrengo formakuntzak prestatu eta hobetzeko, ikaskuntzak sistematizatu.
- Ebaluazioak aldaketa-neurketa dakarrenean, itzuli emaitzak parte-hartzaileei, haien ekarpena aitortzeko eta prozesua modu koherentean ixteko.

### Gure kasuan...

Zorionez, EHUKo ikerketa-talde bat izan genuen, ebaluazio-prozesu osoan lagundu zuena, eskolak etxeko langileengan zuen eragina agerian utzi zuten zientifikoki kontrastatutako teknikak aplikatuz. Horri esker, aldaketa esanguratsuak identifikatu ziren haien lidergo- eta komunikazio-gaitasunetan, gizarte-antolaketan eta eskubideen defentsan, baita autozaintzan, taldearen eta ingurunearen jasangarritasunean eta sareetan parte hartzean ere. Edukien eta metodologiaren egokitasuna ere ebaluatu zen, haien formakuntza-beharrei eta itxaropenei zenbateraino erantzuten zieten baloratu.

### Zer egoeratik ikasi dugun...

Talde dinamizatzaile gisa, parte-hartzaileei ezin izan genien hasieratik azaldu ebaluazioaren garrantzia, eta ez genuen asmatu modulu bakoitzerako teknikarik egokienak erabiltzen. Horregatik, formatua aldatuz joan ginen. Horrek zaildu egin zuen datuak modu homogeneoan jasotzea, eta emaitza batzuk ezin konparatzea ekarri zuen.

Berrito egingo bagenu, galdetegi laburrak erabiliko genituzke, modulu bakoitza amaitzean bete beharrekoak, eta parte-hartzaileei azalduko genieke etorkizuneko prozesuak hobetzean eta egoera berean dauden beste pertsona batzuei laguntzean dagoela haien erabilera.

## 3.7. Ospakizuna

### Helburua

Lorpen indibidual eta kolektiboak aintzat hartzea, egindako ahaleginari balioa emanez.

### Nola egiten den

Ospakizuna ez da soilik jai-une bat, baizik eta formakuntza-prozesuaren itxiera sinboliko bat. Bizi izandakoa adierazteko, ahalegina eskertzeko eta norbanakoen eta taldeen lorpenak aitortzeko abagunea da. Ondo planteatuta, autoestimua indartzen du, loturak sendotzen ditu eta talde-kohesioa indartzen du, parte-hartzaileak eskolatik harago aktibo jarraitzera animatuz.

Ospakizunetarako guneek seguruak izan behar dute, pertsonak eroso senti daitezen. Horretarako, eta formakuntza-guneetan bezala, gomendagarria da leku ezagun eta konfiantzazkoa aukeratzea, baita data eta ordutegia zaintzea ere, parte-hartzaile gehienak joan daitezen ahalbidetuz.

Baina lekua eta ordua ez dira dena. Lorpen kolektiboak ospatzea bada kontua, funtsezkoa da horietaz jabetzea eta omenduak parte senti daitezen lortzea. Horregatik, garrantzitsua da formakuntzan parte hartu dutenak ospakizunaren antolaketan inplikatzeko. Horrela, lortutako lorpenez jabetuko dira eta horrek are gehiago lagunduko du eskola zuzentzen zaion kolektiboa ahalduz.

Era berean, aintzatespenak inplikazio soziala du, beste pertsona batzuek ere egindako lana balioestetik abiatzen baita. Alde horretatik, funtsezkoa da kanpoko beste pertsona batzuek ere hori onartzea. Hori dela eta, prozesuan parte hartu duten beste pertsona batzuk ere gonbidatzera animatzen zaituztegu: hezitzaileak, dinamizatzaileak, administrazio publikoak...

### Gakoak

- Eskola politikoan parte hartzen duten pertsonentzat leku seguru eta irisgarria bilatu.
- Aukeratu parte-hartzaile gehienak joateko aukera ematen duen data eta ordutegia.
- Ospakizunaren antolaketan jarri formakuntzan inplikaturako pertsonak.
- Gonbita egin eskola politikoan lagundu duten pertsona garrantzitsuei.
- Zaindu ospakizunak bizi izandakoa adieraz dezan eta eskolatik haratago jarraipena eman dezan.

## **Gure kasuan...**

Graduazio festa bat ospatu genuen eskola politikoko parte-hartzaileekin, behin hura bukatuta. SOS Arrazakeriaren egoitzan izan zen, formakuntzan parte hartu zuten etxeko langile guztiek ezagutzen duten tokian, eta larunbat arratsalde batean antolatu zen, langile gehiagok denbora librea duten unea aprobetxatuz.

Parte-hartzaileen profila oso anitza zen formakuntza arautuari zegokionez ere: baziren unibertsitate masterrak zituzten emakumeak eta baita irakurtzeko eta idazteko zailtasunak zituztenak ere; baziren beren bizitzan hainbat graduazio eginak zituzten emakumeak eta inoiz bakar bat egin ez zutenak. Hori dela eta, eskola politikoaren amaiera graduazio gisa ospatzea erabaki genuen, birretak, dekorazioa eta presentzia instituzionala bezalako elementu tradizionalekin. Baliotsuena izan zen langileak berak inplikatu zirela ikur horiei forma ematen: batek birretak egin zituen, beste batzuk dekorazioaz arduratu ziren, beste batzuk bazkaria prestatzeaz eta beste bat diplomak parte-hartzaileen izenekin pertsonalizatzeaz. Horrela, ospakizunak, guztien ahalegina aitortzeaz gain, talde barruko jakintzak eta ezagutzak berdintzen zituen, eta bakoitzari bere burua emakume jakintsu gisa ikusteko eta ezagutzeko aukera ematen zion, bere ikaskideen maila berean.

Era berean, hezitzaileak eta herriko alkatea gonbidatu genituen, esker oneko hitz batzuk esan eta diploma banaketa egiteko.

Horrek guztiak norbanakoen autoestimua eta talde kohesioa areagotzen lagundu zuen; izan ere, ospakizunean, eta hainbat udalerritatik etorrira, emakume langile guztiak elkartu ziren, eta taldea zein zabala zen jabetu. Era berean, alkatearen parte-hartzea eta aintzatespena tarteko, langileek beraiek eman zioten balioa egindakoari eta elkartuago eta udalerriko parteago sentitu ziren.


## **Zer egoeratik ikasi dugun...**

Parte-hartzaile guztiek ahalegin handia egin bazuten ere, batzuk modulu guztietara joan ziren, eta beste batzuk, berriz, bakar batzuetara. Horregatik, garrantzitsutzat jotzen dugu inplikatuenei diploma bat ematea eta gutxiago joan zirenei parte-hartze ziurtagiri bat. Horrek agerian utzi zuen ez genuela beti asistentzia-zerrendarik pasatu. Horrela, esperientzia errepikatuko bagenu, asistentzia modu erregularragoan eta jarraituagoan kontrolatzeko metodoak ezarriko genituzke.

# 04

---

## ONDORIOAK ETA IKASKUNTZA NAGUSIAK



SOS Arrazakeria Gipuzkoak bultzatutako etxeko langile migratzaileen eskola politikoak erakutsi du helburua ez dela soilik edukiak transmititzea, baizik eta prozesu batzuk eraikitzea, non emakumeak zuzenbide-subjektu eta subjektu politiko gisa aitortuak izango diren. Guneak zaintzen direnean, moduluak elkarrekin konektatzen direnean eta, metodologia irisgarri eta afektiboetatik abiatuta, parte-hartzeari lehentasuna ematen zaionean, errealitatea kritikoki aztertzeko, antolatzeko eta eskubideak defendatzeko gaitasunak azaleratzen dira.

Hezitzaileen hautaketan koherentzia politikoa sustatzeak (emakume migratuak eta kolektibo aliatuak lehenetsiz), ebaluatzeak eta itxiera ospatzeak, identitatea, zilegitasuna eta jarraipena indartzen dute. Ondo ebaluatzeak —eta emaitzak itzultzeak— esperientzia talde-ikaskuntza bihurtzen du; ospatzeak lorpenak aitortzen ditu, eta etorkizuna proiektatzen du.

Horregatik partekatzen dugu gida hau: beste ekimen batzuek metodologia erreplikagarri hau beren testuingurura egokitu dezaten. Kolektibo bakoitza desberdina da, baina partekatutako baloreek —diagnostiko kokatuak, loturak, edukien interkonexioa, parte-hartzea eta zaintza— akatsak murrizten eta emantzipazio-prozesuak biderkatzen laguntzen dute.

### **Gure kasuan...**

90etik gora emakumeek parte hartu zuten; ia %40k moduluen erdiak baino gehiago egin zituzten. Prozesuak giro goxoa eta konprometitu sortu zuen, politizazioa bultzatu zuen eta eskubideen aldeko ekintza kolektiboa indartu. Gainera, EHUK egindako ebaluazioak baieztatu zuen ezen lidergoan, komunikazioan, gizarte-antolaketan, autozaintzan eta sareetako parte-hartzean aldaketa esanguratsuak gertatu direla, bai eta edukien eta metodologiaren egokitasunaren balorazio altua ere. Emaitza hauekin, bigarren fase bat prestatzen ari gara: funtzionatu zuena erreplikatu dugu eta gida honetan jasotako ikaskuntzak aplikatu ditugu esperientzia hobetzeko.



LANKIDETZARAKO ETA  
ELKARTASUNERAKO  
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN Y  
SOLIDARIDAD

